


Neonatologiako Unitatea



Zuen erosotasunerako eta hurrei arretarik onena eskaintzeko, ospitale batek behar duen lasaitasuna eta isiltasuna mantentzen lagungarriak izango zaizkizuen gomendioak eman nahi dizkizuegu.

*Gurekin telefono bidez harremanetan jartzeko zenbaki honetara deitu behar duzue:
943 00 72 35*

Sarbidea. Unitate honetan sartzeko txirrina jo eta itxaron erizainak adierazi arte. Beharrezkoa da eskuak ur eta xaboiarekin ondo garbitzea.

Bisitak. Ospitaleratuta dagoen hauraren gurasoak egunero etor daitezke, goizez 12:00etatik 13:00etara eta arratsalde 17:00etatik 18:00etara.

Ordutegi honetatik kanpo, bularra edo biberioia eman behar duten amak bakarrik sartuko dira. Gainontzeko senideen bisita-ordutegia 16:30etik 17:00etara izango da astearte, ostegun eta igandeetan. Bi senide sar daitezke gurasoen baimenarekin. Ikustera joan zaren umea bakarrik bisitatu behar duzu.

Edoskitzea. Bularra emateko ordutegi ohikoenak hauexek dira:

3 ordutik behin hartzen dutenentzat: 9:00, 12:00, 15:00, 18:00 eta 21:00etan.

4 ordutik behin hartzen dutenentzat: 9:00, 13:00, 17:00 eta 21:00etan.

Informazio medikoa/Zainketa ertainak. Ospitaleratzean ematen denaz gain, zure haurra artatzen duen medikuak unitateko kanpoko bulegoan emango dizu informazioa astelehen, asteazken eta ostiraletan 11:30ean.

Informazio medikoa/Zainketa intentsiboak: Ospitaleratzean ematen denaz gain, egunero ematen da eboluzioari buruzko informazioa 12:00etan Jaioberrien Unitatean bertan.

Jaioberrien Zainketa Intentsiboak Nahi baduzu, ospitaleak zure eskura jartzen du laguntza psikologikoa emateko taldea.

Liburuxka honetan jasotako ordutegiak alda daitezke, bereziki intentsiboetako aldean, eta gerta daiteke une batean gela uzteko gonbitea egin behar izatea izan daitezkeen kasu larriak eta urgenteak artatu ahal izateko.